


TXANPONENeko ITURRIA
F MAILA
SAN ROKE 57

Deskribapena

Iturri zahar baten hondarrak, Arbaizeneko espazio libreen toki sisteman kokatuak, iturburua zen, eta handik erreka bat abiatzen zen Arbaizeneko Garbitokiraino eta gero Morlanseraino jarraitzen zuen.

Iturriaren inguruneko belar-sastrakak garbitzeko arestiko lanen ondoren, junturak etenda egindako silarrizko hamar ilarak osatutako aurrealdeko horma bat ikus daiteke, eta haren behealdean bi bao daude horma hobi gisa. Hortik irteten zen iturriko ura; eskuinaldeko baoaren aurrean harrizko azpil landugabe bat dago, iturria uraska gisa erabiltzeko aukera ematen zuena. Iturriaren lurra ingurunea baino beheragoko kotan dago, eta harrizko bost maila ditu, desnibela iturriaren mailaraino gainditzen dutenak.

Babes erregimena.

1. Babes erregimen orokorra.
Plan Berezi honen F babes mailan sartzearekin loturikoa.
2. Babes erregimen espezifikoa:
 - A. Babestu gabeko elementuak: ez.
 - B. Elementu edo zati iraunkorrak: ez.
 - C. Esku hartzeko murrizketa partikularrak: harrizko horma eta iturriaren azpila desmuntatzea eta ingurura lekualdatzea baimentzen da, hura zaharbertzeko, haren garrantzia azpimarratzeko eta mantentze funtzional zuzena egiteko, zonako Antolamenduko Plan Bereziak zehazten duen baldintzetan.